

NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

dutela eta egun gehiagotan okupatzen dutela mintegiaren espazioa.

2.- GAUR EGUN HAZI ETA LANDARE EKOLOGIKOAK LOR DITZAKEGU

Aipatu dugunez, EAEn hainbat mintegi ditugu landare ekologikoak eskaintzen dituztenak. Ekoizleen eta mintegien artean egiteke dagoen zerbaiteko da ekoizpena antolatzea; batzuek landarea ekologikoa eskura izan dezaten behar dutenean, eta, besteek berriz, zer, zenbat eta noizko ekoizteko behar duten jakin dezaten. Egia da ekoizleentzat lan astuna dela, baina egia da ere, behin programazioa egin da, hurrengo denboraldiak ez direla askorik aldatuko eta lana antolatzekeo balioko duela. Mintegietako langileen ikuspuntutik begiratuta, alde zuretik zer ekoizteko behar duten jakitea laguntza handia da.

Haziei dagokienez, barietateen “hobe-kuntzaren” irizpideek azken hamarkadotan ikuspuntu produktibista hutsa jarrai-

tu dute (etekin handiagoa, garraioari erresistentzia, goiztiartasuna...). Ondorioz, bertako barietate asko galdu egin dira, beste irizpide batzuekin garatutakoak baitiren (arazorik gabeko ekoizpena kasu, produktibitatea txikiagoa izanda ere). Hala ere, bertoko eta aspaldiko barietate asko daude oraindik oso erabiliak direnak, baita nekazaritza konbentzionalean ere (Zallako kipula gorria, Gernikako kalabaza edota piper txorizeroa, esaterako). Tokiko barietate zaharren erabilera aldarrikatzearekin batera, horien artean altxor asko baitaude (baita maila produktiboan ere), argi dago hazi ekologikoaren eskaintza azken hamar urteotan asko aldatu dela. ENEEK bertan hazi ekologikoen ekoizle bat badugu (ClementeViven), ziurtatutako 150 erreferentzia dauzkana. Bestalde, Frantzia edo Italia moduko Europako herrialdetan, hazi ekologikoen eskaintza nabarmen hazi da.

Ezin aipatu gabe utzi barazkigileek duten baliabide garrantzitsuenetarikoa: hazi

propioak. Norberaren landarea egitea baino gauza ekologikoagorik ez dago, nahiz eta jakin behar den horrek pazientzia handia eskatzen duela: teknika ezagutu behar da eta ahalegina beti ez da saritua.

3.- EUROPAKO ARAUDIAK ESKAINTZEN DITUEN SALBUESPENAK «HOBETZEKO PUNTUAK» DIRA

Barietate ekologiko bat lortzerik ez bada, Europako ekoizpen ekologikoaren araudiak baimendu egiten du tratatu gabeko hazi konbentzionala erabiltzea. Araudiak salbuespen hori onartzen du oraindik ere barietate konbentzionalen eskaintza ekologikoena baino dezente zabalagoa delako, nahiz eta hazi ekologikoen eskaintza asko garatu den.

Hazi konbentzionalak erabiltzeko aukera egiten dutenek argi izan behar dute “ez tratatua” aurrizkia soilik ekoizpenaren azkenengo pausuari dagokiola, hau da, ontziratzeari. Hazi “ez tratatuek” ez dute tratamendurik jasotzen ontziratzeko

egonaldia luzatzeko (kontserbagarriak), baina ekoizpenean hazi konbentzional baten tratamendu berdina jasotzen dituzte.

Araudiaren salbuespenak eredu ekologikoaren garapena indartzeko pentsatu ziren, baina alde iluna ere izan dezakete salbuespenok. Mintegi eta nekazariak «koltxoi» horretan eroso egoteko arriskua daukate, jakinda barietate konkretu baten hazi ez tratatuek emaitza onak ematen dizkietela. Horrek ekologikoan izan badiren eta oso emaitza onak eman ditzaketen beste barietate batzuk ez probatzera eraman ditzakete. Hor daukagu garapenerako beste puntu garrantzitsu bat: “beste” barietate ekologikoen portaera agronomikoa ikertzea. Lan horretan nekazariak, mintegiek, ENEEK berak eta sektoreko elkarte guztiek dute ardura.

ENEK
Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura
Ekologikoen Kontseilua

«Vieja luna de Bilbao»

Joxean Agirre

Zenbat poztu nintzen orain bi aste gaztelerazko saiakera saileko Euskadi saria Joseba Zulaikaren “Vieja luna de Bilbao” lanari eman ziotela jakitean, sariak, beren akats eta guzti, balio izaten baitute batzuetan aitorenak egiteko. Poztu nintzen, noski, euskarazkoa Joxe Azurmendi eman ziotelako, baina Joxe babestuago sumatzen dut, eraikitzen ari diren diskurtso abertzale berriak bere lana kontuan hartzen dutelako. Zulaikak, aldiz, bakarrik jarraitzen du, bere buruarekin edo bere baitako mamuekin borrokan, bere burua zigortzen ere bai tarteka, Oteizaren seme edo Unamunoren oinordeko.

Bere tesia (“Violencia vasca: metáfora y sacramento”) jaioterrian, Itziarren, kokatu zuen eta herriko bi seme, Carlos eta Martin, aukeratu zituen, ezker abertzaleko lider natural bat eta sistemarekin kolaboratzen zuen herritar bat, bien arteko gudu moduko bat antzektuz indarkeriaren espirala ikertzeko. Antropologia lana da, noski, baina irakurtzen ari dena greziar tragedia

baten aurrean senti daiteke edo opera ikusgarri baten barruan, Zulaikaren gaitasuna irakurlea gaiaren muineraino eramatea baita.

“Bertsolaritza, jokia eta jolasa” idatzi zuen ondoren, teoria edo intuizio bat hartu eta distira ikusgarriak atereaz. “Bertsolari” aldizkariak liburua berrargitaratu zuenean, bere aitari buruzko testu eder bat erantsi zion, guztiz literarioa, Zulaikak antropologia egiten duenean literatura ere egiten baitu, bere baitan inoiz erabat kanporatu ez duen nobelagile bat balu bezala.

Ondoren etorri zen Guggenheim museoari buruzko bere diatriba (“Guggenheim, crónica de una seducción”), begiak zabaldu zizkiguna. Baina Frank Gheryren diseinua ikusi eta liluratuta geratu zen, eta azkar ikusi zuen museo berria berak hainbat maite zuen Bilboren eraberritzean pieza garrantzitsua izango zela. Ez naiz harritzen lilura horrekin, Zulaikak, bere amerikar adiskide batek bezalaxe, New Yorkeko

metroko aireak Marylini harrotzen dion gona plisatuaren forma hartu baitzion eraikinaren diseinuari.

“ETAren hautsa” atera zuen su-etenaren ondoren eta beste zenbait lanen buruan “Vieja luna de Bilbao” utzi zigun iaz, belaualdi baten kronika, ETAren sorrerako lekukotza, hiriaren eraldaketaren interpretazioa eta bere obsesioen bilduma den obra erdi literarioa, tarteka beste behin ere bere biografiako hainbat lerro dituen.

Eta pasadizo bat bukatzeko. Zulaikak pasio izugarri maite ditu bere maisu kutunak ere, horien artean Alain Badiou, pentsalari marxista berritzailea. Artean oso gaztea zela irakasle izan genuen Parisen. Esan nion behin Josebari eta adarra jotzen ari nintzaiola pentsatzen zuen, eta kontatu zidan behin etxean haren lan bat irakurri Badiou gora eta Badiou behera matraka ematen zebilela, Goretik, emazteak, nazka-nazka eginda esan ziola: «hainbeste maite baduk Badiou hori, joan hadi Parise-ra eta ezkondu hadi berarekin». •